

Antzinako Musikaren Asteak artista eta talde ospetsuen 8 kontzertu eskainiko ditu

Irailaren 1a eta 10a bitartean izango dira Gasteizen, Maeztun, Kuartangon eta Baranbion

Aipatzekoa da Jordi Savall egongo dela, antzinako musikaren munduko musikaririk onenetako bat, eta lan hau eskainiko du: *Oriente-occidente. Diálogo de las almas*

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 27a. Arabako Antzinako Musikaren Astearen XXXVII. edizioak hemengo bertako, nazioko eta nazioarteko artisten eta taldeen 8 kontzertu eskainiko ditu aurten, zeinek XVII. eta XVIII. mendeetako konposizio eta musika tresnak erakutsiko baitituzte, proposamen klasiko eta berritzaileen bidez. Programa irailaren 1a eta 10a bitartean gauzatuko da Gasteizko, Maeztuko, Zuhatsu Kuartangoko eta Baranbioko eskenatokietan.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak azaldu du ezen jaialdiaren hogeita hamazazpigarren edizioak “barietatea eta kalitatea” eskaintzen dituela, eta horretarako kartel bat taxutu duela, modu orekatuan konbinatzen dituen kontzertu klasikoak eta musika eta antzerkia uztartzen dituen proposamen “berritzaileagoak”. Del Val-ek nabarmendu du Jordi Savall egongo dela –antzinako musikaren munduko artistarik onenetako bat–, eta kontzertuek Barrokoko emakume konpositore nagusien lanak berreskuratuko dituztela.

“Jordi Savall ekartzea lortu dugu, zeina munduko artista onenatariko bat baita, eta hori lortu dugu Lizarrako Antzinako Musikaren Astearekin eta Logroñoko Antzinako Musikaren Astearekin izandako elkarlan eta koordinazioari esker. Kartelak, gainera, Barrokoko emakume konpositore onenen lanak oinarri eginiko kontzertuak jasotzen ditu; baita XVIII. mendeko euskal konpositore nagusiak eta euskal marinel Antonio Gaztañeta protagonista duen bidaia musikal bat ere” erantsi du.

Programaturiko 8 kontzertuetatik 5 Gasteizen egingo dira. Arabako hiriburuko kartela irailaren 3an hasiko da, 20:15ean, Done Petri elizan, eta “Intonaciones” taldea arituko da jotzen. David Sagastume gasteiztarra da taldearen burua, eta Gasteizko beste musikari ospetsu bat ere taldeko kidea da; hain zuzen ere, Daniel Oyarzabal organo jotzailea.

“Intonaciones” taldeak Gaspar Fernández-ek konposatu eta helarazitako Espainia Berriko Erregeordealdiaren XVII. mendearen hasierako obra polifonikorik onenak interpretatuko ditu.

‘Musica Boscareccia’

Hurrengo egunean, irailak 4, ‘Musica Boscareccia’ taldea arituko da. Talde hori musika jaialdirik eta kontzertu aretorik garrantzitsuenetako artistek osatzen dute (sopranoa, biolina, txeloa eta klabea), eta 20:15etik aurrera *Donde luz y sombra se entrelazan* joko dute Santa Maria Katedralean; programa horretan, biolinarekin jotako Telemann, Haendel eta Bach konpositoreen aria alemanek daude.

Santa Maria Katedrala berriz izango da eskenatoki irailaren 5ean, ordu berdinean, eta “Forma Antiqua” arituko da jotzen. Forma Antiqua musika barroko taldea da. Kideak aldatuz doaz eta, horri esker, belaunaldiko interpretatzaile bikainenak pasatzen dira taldetik. Ondorioz, Espainiako musika klasikoko talderik garrantzitsuenetakotzat du kritikak, nazioko eta nazioarteko jaialdi eta auditoriorik ospetsuenetan aritzen baitira.

‘Forma Antiqua’ taldeak giro lasaia eragiten du, eta, nolabait, edozein kontzertu klasikoren etiketatik aldentuta daude.

Antzinako Musikaren Asteak berriz ere hartuko du Santa Maria Katedrala, irailaren 6an, 20:15ean, Jordi Savall (arku lira, rabel-a eta rebab-a) eta Pedro Estevan (perkusioak) musikari kataluniarrak protagonista izango dituela, eta proposamen hau ekarriko dute: *Oriente-occidente. Diálogo de las almas*. Bi artista ospetsu horiek 200 disko baino gehiago grabatu dituzte, eta antzinako Hispania kristau, judu eta musulmaneko, Erdi Aroko Italiako, Marokoko, Israelgo eta abarreko lanak interpretatuko dituzte.

Gasteizen emango diren lau kontzertu horietara joateko interesa duten pertsonak (Done Petri eliza eta Santa Maria katedrala) doan jaso ahalko dituzte sarrerak, zeinak datorren ostegunean, hilak 29, banatuko baitira 17:30etik aurrera, Santa Maria katedralaren elizpean. Bi sarrera jaso ahal izango ditu bakoitzak kontzertuko.

Gasteizen (Arte Ederren Museoa) eta Arabako herrietan programaturiko gainerako kontzertuetara edonor sar daiteke eta doan dira, harik eta toki guztiak bete arte.

Gasteizko programazioa irailaren 7an itxiko da, 12:30ean, Arte Ederren Museoa, “Les Sylvains Ensemble” taldearekin. Duo hori Armelle Morvan (sopranoa) eta Arrate Zubigaray (klabea) musikariek osatzen dute. 2015ean hasi zuten haien ibilbidea Musikenen ikasten ari zirela, eta *Lacrime delle Donne* obrarekin Barrokoko bi emakume konpositore nagusien lanak berreskuratuko dituzte; hain zuzen ere, Francesca Caccini eta Barbara Strozzi-ren lanak.

Arabako herriak

Arabako Antzinako Musikaren Astea lurralde historikora zabalduko da hiru kontzerturekin. Programazio hori irailaren 1ean hasiko da, 19:30ean, Maeztuko Gurutze Santuaren Asmakuntzaren elizan, Lucía Caihuela (sopranoa) eta Manuel Minguillón (artxilautea eta gitarra barrokoa) musikarien eskutik. *L’Eraclito Amoroso* eskainiko dute, zeina Barbara Strozzi-ren madrigal eta arien eta Alessandro Piccinini-ren pieza instrumentalen aukeraketa baita.

Lucía Caihuelak Europako hainbat herrialdetan lan egiten du, eta Madrilgo Auditorio Nazionalean eta Teatro Realen, Utrecht-eko eta Amsterdameko eskenatokietan abestu du; Manuel Minguillón-ek, berriz, nazioko eta nazioarteko talde, orkestra eta konpainia ospetsuekin lan egiten du, eta zuzendari eta solista ospetsuenetatik zenbaitekin aritzen da jotzen Europako, Amerikako eta Australiako eskenatokietan.

Zuhatzu Kuartangoko Antzoki Bainuetxean ariko da ‘Musbika Ensemble’ taldea, irailaren 7an, 19:00etan, eta *El Viaje de Antonio Gaztañeta* interpretatuko du. Talde horrek duela hiru urte hasi zuen bere ibilbidea Elgoibarren, eta antzinako musikaren etiketak hausten eta arte hau publiko guztiari helarazten lan egiten du.

Prensa Oharra Nota de Prensa

Eszenaratze freskoa eta dinamikoa proposatzen du, eta edonor harritu eta musika honetaz gozatzeko aukera ematen du.

Oraingoan, musikak eta testu dramatizatu batek osatzen duten ikuskizuna eskainiko dute, aukera emanez eragin handiko euskal marinel Antonio Gaztañetaren ontzian bidaiatzeko.

Arabako Musikaren Astearen XXXVII. edizioa irailaren 10ean bukatuko da Baranbion, 12:00etan (Jasokundeko Andra Mariaren eliza), eta “Khantoria” arituko da jotzen. Taldeko kideek *Ojinaga*, *Scarlatti eta Bach a solo y da camera* programa interpretatuko dute klabezin, biolin, biola eta txeloarekin. Programa horrek Joaquín Ojinaga-ren lana ezagutarazten du, zeina XVIII. mendeko euskal konpositorerik garrantzitsuenetako bat baita, eta haren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko prestatu da.